

Nafarroako Gobernuak 2020ko EPEko 715 plaza banatzeko proposamena aurkeztu die sindikatuei; tartean, 199 osasun-plaza, irakasleentzako 332 plaza, Foruzaingoarentzako 45 plaza eta Suhiltzaileentzako 30 plaza aurkitzen dira

Halaber, langile publikoek, isolamendu-kasuan, 14 urtetik beherako seme-alabak artatzeko ordaindutako baimena izango dutela iragarri du

Osteguna, 2020ko Irailaren 24a

Nafarroako Gobernuak, Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean, 2020ko Enplegu Eskaintza Publikorako plazak banatzeko proposamena aurkeztu du gaur goizean, eta guztira 715 plaza jasotzen dira. Horietatik 332 unibertsitatez kanpoko irakasleen lanpostuak betetzeko izango dira, 199 osasun-arloko postuetarako eta 184 plaza gainerako lanpostuetarako.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu [gaztelaniazko bertsioa](#). Goiko nabigazio barra gorrian aukera dezakezu hizkuntza.)